

## BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Aplikazio bat denez, bezero asko eta margen txikiko zer eginak edukiko ditugu, hau da harreman basikoak eskainiko dizkiegu.

Harreman horiei dagokionez, harreman zuzenak eduki nahi ditugu, eta app-an arazorik zein zalantzarik izatekotan, gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute. Horren eraginez, harreman iraunkorra lortzea errazagoa izan ahal da. Hau da, gure aplikazioaren xedea bezeroekin harreman iraunkorra bilatzea da, bezero fidelak lortzea, baita bezeroekin epe luzeko harreman estuak edukitzea ere.

Beste aldetik, bezero berriak lortu ahal izateko, aplikazioa bi asteen zehar doain izango da. Horren ondorioz, pertsona berriek gure app-a frogatu ahal dute eta horrela, gure aplikazioa garatzeko parada gehiago izan ahal ditugu

Sare sozial eta webgunei esker bezeroekin harremanetan egon ahal gara. Izan ere, instagram kontuaren bidez, bezeroek aplikazioa hobetzeko proposamen berriak egin ahal dituzte baita zalantzak galdetzea ere. Beste aldetik, guk gauza berriak eskainiko dizkiegu eskakizunaren ondorioz, hau da, aplikazioan arazorik baldin badaude ahalik eta azkarren haien gustura jartzeko aldaketak egingo ditugu. Horrekin ere, aplikazioaren zenbaki deskargak gero eta handiagoak izatea lor genezake.

Azkenik, aplikazioa lehen aldiz erabiliko duten bezeroentzat, nola erabilzten den ikasteko bideo tutoriala izango dute, horrela app-aren erabilera askoz hobeto ulertuko dute.